

## DIRU ITURRIAK

Diru iturriak ezinbestekoak dira enpresa bat aurrera eraman ahal izateko, eta hauek saltzen dugun produktu kantitatearen arabera izango dira, hau da, zenbat eta gehiago saldu, zenbat eta gehiago irabazi. Gainera, irabazi hauek gure enpresa mantentzea ahalbidetuko digute.

Enpresa martxan jarri ahal izateko, bakoitzak 1.200€ jarriko ditu, beraz, guztira 4600€ edukiko genituzke gure proiektua aurrera eramaten hasteko. Honekin, beharrezkoak diren produktuak eta gure webgunean kasko eredu batzuk erakutsi ahal izateko. Honez gain, bankuari mailegu bat eskatuko genioke, 2.000€-koa gutxi gorabehera, izan ere, guk jarritako diruarekin soilik ezingo genuke enpresa behar den bezala montatu.

Gainera, kaskoak saltzen ditugun bakoitzean, diru sarrerak lortuko ditugu, baina honi ekoizpen edo erosketa prezioa kendu behar diogu etekinak zeintzuk diren jakiteko. Kaskoa 120€-tara salduko genuke gutxi gorabehera eta hau beste enpresa batzuei erosiz gero 40€ inguruan erosiko genieke, beraz, 80€ inguru irabaziko genuke saldutako kasko bakoitzeko.



Laburbilduz, gure diru iturriak hainbat toki ezberdinetatik jasoko ditugu. Hasieran, guk jarritako dirua eta bankuari eskatutakoarekin hasiko genuke gure proiektua, eta aurrerago, gure kaskoak bezeroei salduz lortutakoagandik irabaziko genituzke diru sarrerak.

Guk jartzen dugun dirua eta beste iturrietatik jasotzen duguna kontuan hartuz, lehenengo 4.600€ edukiko genituzke lehen aipatu dugun moduan. Ondoren, hilabete bakoitzean 70 kasko saltzen baditugu 8.400€ inguruko diru sarrerak edukiko genituzke hileroko, beraz, urteko salmenta 100.800€-koa izango litzateke.

